


2. BALIOA

Gure produktua berritzailea da, izan ere, birziklatzearen alorrean, biztanleei lagunduko die eta ingurumenean eragin positiboa izango du. Jendearen bizi-kalitatea hobetuko du erosotasunaren aldetik, hain zuzen ere, hondakin guztiak automatikoki birziklatuko dira. Horrela, jendeari gutxiago kostatuko zaie birziklatzea.



Hasieran, produktu hau erokeria dirudien arren, azkenean ezinbestekoa den eguneroko zerbait bihurtuko da. Helburua, jendeak produktua ezagutzea eta bere egunerokotasunerako eta ingurunean izan dezakeen eragin positiboaz ohartzea da.

Egia da zaborrontzi handietan hondakinak bereizten dituzten makinak daudela, gero birziklatu ahal izateko. Horrez gain, kaleetan aurkitzen ditugun zaborrontzietan birziklatzeko irizpide desberdinak daude, hala nola, zaborrontziak kolore desberdinetakoak izatea. Hala eta guztiz ere, jende askok ez die jaramonik egiten jarraibide hauei, eta hondakinak edukiontzi berera botatzen dituzte. Gure produktuarekin, arazo horiek sahiestuko dira, izan ere, hondakinak etxe bakoitzak duen zaborrontzira bota besterik ez bailukete egin beharko, eta dena automatikoa izango litzateke.

Kaleko zabor-edukiontziak desagertuko lirateke eta desatseginak diren usainak ekidituko genituzke, kaleak aldi berean edertuz. Aldiz, zaborrontzi txikiak kalean egoten jarraituko lukete, eskura ditugun zikinkeriak bota ahal izateko.

Menikanismo berritzaile honek ez du inolako arazorik eragingo gure eguneroko bizitzan, izan ere, erosotasun eta erabilgarritasuna bermatzen ditu. Hori dela medio, zaborra garraiatuko luketen hodiak eraikineko hormen barrutik joango lirateke eta ez lukete eragozpenik sortuko.

Gehiengoarentzat eskuragarria izango denez, jendea ez litzateke prezioaren inguruan arduratu beharko. Ahalik eta publiko zabalenera heltzea da honen helburuetako bat. Inork ez du produktu hori bere kabuz erosi beharko, bizilagun bakoitzak ordaintzen dituen erkidegoaren zergetan sartuko litzateke dena eta mantentze-lanen eta konponketei dagokienez, epe jakin baterako estaliko dituen aseguru bat ere egongo litzateke, erkidego bakoitzarekin sinatzen diren kontratuetan hitzartuta.

Produktu horrek, bestalde, berme bat izango du eta etxebizitza bakoitzaren kontratuan hitzartuko da, ziurtatuz ahalik eta gehien egokituko dela etxebizitza bakoitzaren beharretara. Segurantza, eraikinaren neurriaren, mekanismoaren

egituraren eta instalatzeko kostuaren araberakoa izango da, 10 urte inguruko bermea izanik.

Amaitzeko, gure produktua erabiltzeko, ez da aldez aurreko azterketarik egin behar eta erabil erreza izango da, hau da, gure eguneroko bizitzan ez luke aldaketa nabarmenik izango. Azken finean, bezeroak beti bezala, hondakina botako du zaborrontzira, eta ez du inolako alderik nabarituko bere egunerokotasunean.